



Kale Nagusia 10 (KP 31820)
Tef. 948460004
udala@etxarriaranatz.eus
www.etxarriaranatz.eus

EDIKTUA

BOST MILA EURORA (5.000,00 EURO) ARTEKO FAKTURETAN FAKTURA ELEKTRONIKOA AURKEZTU BEHARRETIK SALBUESTEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA :BEHIN BETIKO ONESPENA

Etxarri Aranazko Udalak, 2015eko urriaren 2ko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Bost mila eurora (5.000,00 euro) arteko fakturretan faktura elektronikoa aurkeztu beharretik salbuestea arautzen duen ordenantza

Onespenaren erabakia 2015eko 221 Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, azaroaren 6an. Jendaurreko epean alegaziorik aurkeztu ez denez, behin betikoz onetsi da eta ordenantza osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean ematen da argitara, behar diren ondorioak izan ditzan; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu zuen hartan, xedatutakoari jarraikiz.

UDAL ORDENANTZA, 5.000 EURORA ARTEKO FAKTURETAN FAKTURA ELEKTRONIKOA AURKEZTU BEHARRETIK SALBUESTEA ARAUTZEN DUENA

Artikulu bakarra.–Sektore publikoan faktura elektronikoa bultzatu eta fakturen kontabilitate erregistroa sortzeari buruzko abenduaren 27ko 25/2013 Legearen 4. artikuluan aurreikusia erabiliz, EtxarriAranazko Udalak faktura elektronikoa aurkeztu beharretik salbuetsi ditu 5.000,00 euro arteko fakturak dituzten hornitzaileak.

Azken xedapena.–Ordenantza honek indarra hartuko du ordenantzaren testua oso-osoarik Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoan eta Estatuko edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioek toki entitateen egintza edo erabakiak indargabetzeko duten eskumena erabiltzeko epea iragandakoa

Etxarri Aranatz, 2015eko abenduaren 21ean
Alkatea: Eneka Maiz Ulaiar

